1. Arabako Foru Aldundiko eta foru erakunde autonomoetako langileen gastuak kasuan kasuko nominen bidez fiskalizatuko dira. Esku hartze horrek ordainsariaren ordainketa osteko fiskalizazio izaera edukiko du. Gastu horiek gerora fiskalizatuko dira, auditoria tekniken bidez.

1. Los gastos de personal de la Diputación Foral de Álava y de los organismos autónomos forales serán objeto de fiscalización mediante la intervención de las nóminas correspondientes. Dicha intervención tendrá el carácter de fiscalización posterior al pago de la nómina. La fiscalización de dichos gastos se realizará a posteriori mediante técnicas de auditoria.

2. Ezin izango dira onetsi aldez aurreko fiskalizazioaren aldeko txostenik gabe: enplegu eskaintza publikoak; giza baliabideak antolatzeko planak, lehiaketa orokorreko deialdiak; lanpostu zerrenden aldaketak eta, oro har, Arabako Foru Aldundiarentzat eta foru erakunde autonomoentzat ekonomia eta aurrekontu eragina izan dezakeen beste edozein kasu.

2. La aprobación de ofertas públicas de empleo, planes para la ordenación de recursos humanos y sus convocatorias respectivas, las convocatorias de concurso general, las modificaciones de las relaciones de puestos de trabajo y, en general, cualquier otro supuesto que comporte repercusión económico-presupuestaria para la Diputación Foral de Álava y los organismos autónomos forales no podrá llevarse a efecto sin informe favorable de fiscalización previa.

3. Era berean, nahitaezkoa izango da aldez aurretik fiskalizazioaren aldeko txostena egitea, lanpostuko, programako eta zeregin gehiegi edo gehiago izateagatik bitarteko funtzionarioak izendatzeko, bai eta berariazko lehiaketarako, izendapen askerako eta zerbitzu eginkizunetarako deialdiak egiteko eta deialdirik behar ez duten beste hornidura sistema batzuen ebazpenak emateko ere.

Foru erakunde autonomoen kasuan, nahitaezkoa izango da aldez aurreko fiskalizazioaren aldeko txostena bitarteko funtzionarioak izendatzeko, egiteko gehiegi edo egiteko metaketa dagoenean, eta funtzio zerbitzu eginkizunetarako.

3. Asimismo, será preceptivo el informe favorable de fiscalización previa para los nombramientos de funcionariado interino de puesto, de programa y por exceso o acumulación de tareas, así como las convocatorias de concurso específico, libre designación y comisión de servicios y las resoluciones de otros sistemas de provisión que no requieran convocatoria.

En el caso de los organismos autónomos forales, solo será preceptivo el informe favorable de fiscalización previa para los nombramientos de funcionariado interino de programa, por exceso o acumulación de tareas y las comisiones de servicios de funciones.

4. Artikulu honen 2. eta 3. apartatuetan

4. Se exceptúan del requisito de informe favorable

aurreikusitako aldez aurreko fiskalizazioaren aldeko txostenaren betekizunetik salbuesten dira presako kasuak, berehala fiskalizatuko direnak.

de fiscalización previa, previsto en los apartados 2 y 3 del presente artículo, los supuestos de carácter urgente, que serán objeto de fiscalización posterior inmediata

18. artikulua. Kanpoko langileak barne hartzen dituzten administrazio kontratazioak edo lankidetza hitzarmenak

Erakunde publiko edo pribatuen edo kanpoko pertsonen eta Arabako Foru Aldundiaren edo foru erakunde autonomoen arteko administrazio kontratazioaren edo lankidetza hitzarmenaren ondorioz, kontratazioaren edo hitzarmenaren garapenean zehar kanpoko langileren baten lana behar bada erakunde horietakoren baten berezko zereginak bete ditzan, erakunde bakoitzaren funtzio publikoaren edo giza baliabideak kudeatzearen arloko organo eskudunaren aurretiko txostena beharko da.

Artículo 18. Contrataciones administrativas o convenios de colaboración que impliquen personal externo

Cualquier contratación administrativa o convenio de colaboración entre organismos, entidades públicas o privadas, o personas externas y la Diputación Foral de Álava o los organismos autónomos forales que, en el desarrollo del objeto de la contratación o convenio implique el trabajo de personal externo realizando funciones en alguna de dichas entidades propias de tal órgano, deberá contar con informe previo del órgano competente en materia de función pública o de gestión de recursos humanos en cada entidad.

II. Kapitulua. Foru Sektore Publikoko bestelako erakundeak

Capítulo II. Otras Entidades del Sector Público Foral

19. artikulua. Foru sektore publikoko bestelako erakundeen aurrekontu plantillak

Artículo 19. Plantillas presupuestarias de otras Entidades del Sector Público Foral

1. Foru merkataritza sozietateen eta foru fundazioen 2027ko ekitaldirako aurrekontu plantillak Arabako Lurralde Historikoaren ekitaldi horretarako aurrekontu orokorretako langileriari buruzko eranskinetan agertzen dira, eta muga jakinekoak dira.

1. Las plantillas presupuestarias de las sociedades mercantiles forales y de las fundaciones forales para el ejercicio 2027 son las que figuran en los «Anexos de Personal» de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Álava para ese ejercicio, siendo su carácter limitativo.

2. Foru merkataritza sozietateen eta foru fundazioen aurrekontu plantilla muga jakinekoa dela joko da, foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen langile lan kontratudun finkoen plazen guztirako agregatuari dagokionez.

2. El carácter limitativo en lo concerniente a la plantilla presupuestaria de las sociedades mercantiles forales y de las fundaciones forales se entenderá referido al total agregado de plazas de personal laboral fijo y para el conjunto de las entidades que forman el Sector Público Foral.

3. 2027ko ekitaldian, plantilla aldaketak honako kasu hauetan besterik ez dira onetsiko: ez da gastu gehikuntzarik sortu beharko, edo sortuz gero, kasuan kasuko gehikuntza bestelako lanpostuetarako kredituak murriztuz konpentsatu beharko da.

3. Durante el ejercicio 2027 sólo se podrán aprobar modificaciones de las plantillas cuando no se produzca incremento del gasto o cuando el que se produzca se compense mediante la reducción de créditos reservados a otro u otros puestos.

4. Gainera, foru arau horrek xedatzen duenez, “aurreko mugak ez du eraginik izango epailearen aginduz edo kanporatutako edo azpikontratatutako zerbitzuen zuzeneko kudeaketa hartzearen ondorioz sortzen edo aldatzen diren lanpostuetan. Era berean, ez da aplikatuko foru arauak aldarrikatzen direnean, ez eta Gobernu Kontseiluak abagunekoak ez diren planak, programak eta jarduketa garrantzitsuak onartzen dituenean ere, haiek behar den moduko finantzaketarik edukiz gero, eta aldez aurreko txostena eginda, zeinak adierazi behar baitu lanpostuak berratxikita, langileak berrizendatuta edo giza baliabideak arrazionalizatzeko eta antolatzeko beste neurri batzuk hartuta ere ezinezkoa dela premia berriei erantzutea.

4. La limitación anterior no será de aplicación en la creación o modificación de puestos en cumplimiento de resoluciones judiciales o como consecuencia de la asunción de la gestión directa de servicios externalizados o subcontratados, o en caso de la promulgación de normas forales, o la aprobación por el Consejo de Gobierno de planes, programas y actuaciones significativas de carácter no coyuntural, siempre que cuenten con la adecuada financiación, y previo informe en el que se haga constar la imposibilidad de atender las nuevas necesidades con la readscripción de puestos de trabajo, la reasignación de efectivos u otras medidas de racionalización y ordenación de recursos humanos.

5. 3. apartatuko muga ez da aplikatuko Araba

5.No será de aplicación la limitación del apartado 3

Garapen Agentzia SA merkataritzako foru sozietatean langile lan kontratudunen plaza 1 sortzean, ezta INDESA 2010 SL merkataritzako foru sozietatean ere, sozietatearen xedea gauzatzeko ekoizpenari lotutako langile lan kontratudunen plazak sortzean.

anterior en la creación de 1 plaza de personal laboral por la sociedad mercantil foral Alava Agencia de Desarrollo, S.A. ni en la creación de plazas de personal laboral vinculado a la producción por la sociedad mercantil foral INDESA 2010, S.L. en el desarrollo de su objeto social.

20. artikulua. Foru Sektore Publikoko bestelako erakundeen ordainsari araubidea

Artículo 20. Régimen retributivo de otras Entidades del Sector Público Foral

1. Foru merkataritza sozietateetako eta foru fundazioetako langile lan kontratudunen 2027rako ordainsari osoak, 2026eko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, foru arau honetan aurreikusitakoarekin bat etorriz handituko dira, alderatutako bi aldietarako homogeneotasunaren arabera, bai langileei dagokienez, bai haien antzinatasunari dagokionez, eta Estatuko oinarrizko legerian ezarritako mugak gainditu gabe.

1. Las retribuciones íntegras del personal laboral de las sociedades mercantiles forales y de las fundaciones forales para el 2027, respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2026, se incrementarán de conformidad con lo previsto en esta Norma Foral, en términos de homogeneidad para los dos periodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo y sin que puedan superar las limitaciones establecidas en la legislación básica estatal.

2. Aurreko apartatuan esandakoaz gain, ordainsarietan egokitzapen bereziak egin ahal izango dira salbuespen gisa, betiere ezinbestekoak direnean, lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzari esleitutako langileen kopuruaren aldaketagatik edo programari ezarritako helburuen betetze mailagatik eta aplikazioaren emaitza indibidualagatik, egokitzapenak egiten dituzten erakundeetako bakoitzean horretarako organo eskudunak onartuta.

2. Lo dispuesto en el apartado anterior debe entenderse sin perjuicio de las adecuaciones retributivas que, con carácter singular y excepcional, resulten imprescindibles por el contenido de los puestos de trabajo, por la variación del número de efectivos asignados a cada programa o por el grado de consecución de los objetivos fijados al mismo y del resultado individual de su aplicación, que serán aprobadas por el órgano competente para ello en cada uno de los entes que realicen las citadas adecuaciones.

Horren ildotik, foru sozietate publikoek eta foru fundazio publikoek funts bat ezarri ahal izango dute produktibitate osagarria emateko bai errendimendu pizgarrien bidez, bai produktibitate kontzeptuaren beraren bidez. Kontzeptu horiengatik ordainsaririk emanez gero, kasuan kasuko organo aginpidedunek funts horren banaketaz ezartzen eta onesten dutenaren arabera emango dira. Hain zuzen ere, artikulu honetako 1. apartatuan eta 3. eta 4. apartatuetan jasotzen diren langileei, bertan zerbitzuan ari direnei, emango zaizkie. Aurreko paragrafoetan ezartzen denaren arabera 2027ko ekitaldian ordaintzen diren kopuruei abenduaren 28ko 13/2000 Legeak, Estatuaren 2001eko aurrekontu orokorrenak, hamaikagarren xedapen gehigarrian ezartzen dituen irizpideak aplikatu ahal izango zaizkie hurrengo urterako gehitzeko, enplegatu publikoen oraingo ekitaldiko aldizkako ordainsarien barruan finkatze aldera.

En este sentido, las sociedades públicas forales y las fundaciones públicas forales podrán establecer un fondo para retribuir un complemento de productividad, bien a través de incentivos al rendimiento, bien a través del propio concepto de productividad. Las retribuciones por estos conceptos se aplicarán, en su caso, según lo establezcan y aprueben los respectivos órganos competentes, para la distribución de dicho fondo, tanto al personal que figura en el apartado 1, como al que figura en los apartados 3 y 4 de este artículo y presta sus servicios en ella. Las cantidades que se pudiesen abonar en el ejercicio 2027 como resultado de lo indicado en los párrafos anteriores podrán verse sometidas a los criterios establecidos por la disposición adicional undécima de la Ley 13/2000, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del estado para 2001, a los efectos de las incorporaciones pertinentes para el año siguiente para su consolidación dentro de las retribuciones periódicas del personal empleado público para ese ejercicio.

3. Foru kargu publikoak diren pertsonei doazkien ordainsariak handitu egingo dira 2027an, hala badagokio, foru enplegatu publikoentzat ezartzen den ehunekoaren antzera. Nolanahi ere, ordainsari horiei Foru Kargu Publikoetan Aritzea arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak xedatzen

3. Las retribuciones correspondientes a las personas que ostenten la condición de cargos públicos forales se incrementarán para 2027 en porcentaje análogo al que se establezca, en su caso, para los empleados públicos forales. En todo caso, sus retribuciones se ajustarán a lo dispuesto

duena aplikatuko zaie.

4. Edonola ere, Arabako Foru Aldundiak, erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta foru fundazioek sindikatu erakunde garrantzitsuenekin negoziazioak egin ondoren ordainsarien inguruko akordioak sinatu baino lehen Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Sailaren aldeko txostena beharko da, eta akordioan ezin izango da ezarri guztirako ordainsarien igoera artikulu honetako 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoa baino handiagoa izatea.

en la Norma Foral 10/2018, de 11 de julio, reguladora del ejercicio del cargo público foral.

4. En todo caso, los acuerdos en materia de retribuciones fijadas tras las negociaciones mantenidas por las sociedades públicas forales y las fundaciones forales con las organizaciones sindicales más representativas deberán contar, con carácter previo a su firma, con el informe favorable del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava y no incluir incrementos de retribuciones íntegras superior al establecido en los apartados 1 y 2 del presente artículo.

VI. TITULUA. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ERAKUNDEEN FINANTZAKETA

21. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen finantzaketa

1. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak 51. artikuluan aipatzen dituen itundu gabeko tributuetan udalek izango dituzten partaidetzen zenbatekoak Estatuko Administrazioak igortzen dituen eurak izango dira, eta hark igortzen dituen maiztasun berarekin aginduko dira.

2. Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek honako partaidetza hauek izango dituzte, 2027ko ekitaldirako zerga itunduetan, Baliabideen banaketarako eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzko urriaren 7ko 4/2021 Legearen V. kapituluan ezarritakoaren arabera:

a) Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren zuzkidura, 341.271.687 eurokoa, 2027ko ekitaldiari dagokion finantzaketa baldintzagabe osoaren kontzeptupean.

b) Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren zuzkidura, 23.416.397,00 euroko zenbatekoarekin, Auzokideen Harremanak Sustatzeko Ekimenei laguntzeko programaren zuzkidura, 789.839 euroko zenbatekoarekin, eta "Obra txikiak egitea" laguntza-programaren zuzkidura, 2.369.517 euroko zenbatekoarekin, 2027ko ekitaldiari dagokion urteko guztizko finantzaketa baldintzatu gisa.

c) Gizarte zerbitzuen zorroa finantzatzeko zuzkidura, 2.819.250 euroko aurrekontuarekin.

TITULO VI. FINANCIACIÓN DE LAS ENTIDADES LOCALES

Artículo 21. Financiación de las entidades locales del Territorio Histórico de Álava

1. Las participaciones municipales en los tributos no concertados a que se refiere el artículo 51 de la Ley 12/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba el Concierto Económico entre el Estado y la Comunidad Autónoma de Euskadi, se ordenarán por los mismos importes y con la misma periodicidad con que se libren por la Administración General del Estado.

2. De conformidad con lo establecido en el Capítulo V de la Ley 4/2021, de 7 de octubre, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las diputaciones forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2022-2026, la participación de las entidades locales del Territorio Histórico de Álava en los tributos concertados para el ejercicio 2027 se compone de:

a) La dotación del Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales, que se presupuesta en la cantidad de 341.271.687 euros, en concepto de financiación incondicionada total anual correspondiente al ejercicio 2027.

b) La dotación del Plan Foral de Obras y Servicios, que se presupuesta en la cantidad de 23.416.397.00 euros, la dotación del programa de ayuda a las Iniciativas para el Fomento de las Relaciones Vecinales, que se presupuesta en la cantidad de 789.839 euros, y la dotación del programa de ayuda “Ejecución de obras menores”, que se presupuesta en la cantidad de 2.369.517 euros, en concepto de financiación condicionada total anual correspondiente al ejercicio 2027.

c) La dotación para financiar la cartera de servicios sociales, que se presupuesta en la cantidad de 2.819.250 euros

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. Dirulaguntzen aurrerakinak.

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 32.6 artikuluan jasorikoaren ondorioetarako, 2027ko ekitaldian, 20.000 eurotik gorakoak ez diren dirulaguntzen eta transferentzien ordainketak, edo onuradunak sektore publikokoak badira, ez dira egongo haren araudi erregulatzailean aurreikusitako aurrerakinen ordainketari buruzko mugen mende.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Langileen gastuak.

Ordainsari igoera ezartzen da 2027ko ekitaldian. Igoera Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluak eta baimena ematen zaien foru sektore publikoko gainerako organo eskudunek zehaztuko dute; nolanahi ere, gehienez ere, Estatuko oinarrizko legerian ezartzen den muga orokorraren bestekoa izango da.

HIRUGARREN XEDAPEN OSAGARRIA. Arabako Foru Ogasunaren tasen aldaketa orokorra.

Lehenengoa. 2027ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, handitu egingo dira Arabako Foru Ogasunaren tasa-tasak, zenbateko finkokoak badira -oinarriko ehuneko batek zehazten ez dituelako-, 2027ean eska daitekeen zenbatekoari 1,03 koefizientea aplikatzetik ateratzen den zenbatekoraino.

Bigarrena. Lehenengo apartatuan ezarritako koefizientea aplikatuta ateratzen diren tasak unitatetan biribildu ahal izango dira, goitik edo behetik.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Arabako toki erakundeek hitzartu beharreko epe luzeko kreditu eragiketak.

Lehenengoa. Ezertan eragotzi gabe Toki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 57.3 artikuluan ezarritakoa, 2027. urtean Kontuen Europako Sistemaren definizioaren eta mugaketaren arabera Administrazio Publikoen sektorean sailkatuta dauden toki entitateek eta haien mendeko entitateek, 2026eko ekitaldiaren likidazioa aurrezki garbi positiboa edo likidatutako edo sortutako diru sarrera arrunten 100eko 2tik beherako aurrezki garbi negatiboa badute, Toki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA. Anticipos de subvenciones.

A los efectos de lo previsto en el artículo 32.6 de la Norma Foral 11/2016, de 19 de octubre de Subvenciones del Territorio Histórico de Álava, durante el ejercicio 2027 el pago de las subvenciones y transferencias cuya cuantía no supere el importe de 20.000 euros, o cuyos beneficiarios sean Administraciones Públicas, no estarán sujetos a las limitaciones sobre el pago de anticipos o abonos a cuenta previstas en su normativa reguladora.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA. Gastos de personal.

Se establece un incremento de las retribuciones para el ejercicio 2027 que se determinará por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Álava y por los órganos competentes del resto de entidades del sector público foral a los que se autoriza para ello, que será, como máximo, el establecido como límite general en la legislación básica estatal.

DISPOSICIÓN ADICIONAL TERCERA. Modificación general de tasas de la Hacienda Foral de Álava.

Primero. Con efectos desde 1 de enero de 2027, los tipos de tasas de la Hacienda Foral de Álava que sean de cuantía fija, por no estar determinado por un porcentaje en la base, se incrementarán hasta la cantidad que resulte de aplicación del coeficiente 1,03 a la cuantía exigible en 2027.

Segundo. Los tipos resultantes de la aplicación del coeficiente establecido en el apartado primero podrán redondearse a la unidad, por exceso o por defecto.

DISPOSICIÓN ADICIONAL CUARTA. Operaciones de crédito a largo plazo a concertar por las entidades locales de Álava.

Primero. Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 57.3 del Decreto Foral Normativo 1/2021, del Consejo de Gobierno Foral de 29 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales, durante el ejercicio 2027, las entidades locales y sus entidades dependientes clasificadas en el sector Administraciones Públicas, de acuerdo con la definición y delimitación del Sistema Europeo de Cuentas, que liquiden el ejercicio 2026 con ahorro neto positivo o con ahorro neto negativo inferior al 2 por 100 de los ingresos corrientes liquidados o devengados, calculado en la forma que establece el artículo 53 del Decreto Foral Normativo 1/2021,

Araugintzako Foru Dekretuaren 53. artikuluan ezarritako moduan kalkulatuta, epe luzeko kreditu eragiketa berriak hitzartu ahalko dituzte, baldin eta kapital biziaren bolumen osoak likidatutako edo sortutako diru sarrera arrunten ehuneko 60 gainditzen ez badu, kontabilitate egoera bateratuetatik ondorioztatutako zifren arabera, eta, hala badagokio, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuari eta Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Araudiari jarraikiz.

del Consejo de Gobierno Foral de 29 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales, podrán concertar nuevas operaciones de crédito a largo plazo cuando el volumen total del capital vivo no exceda del 60 por ciento de los ingresos corrientes liquidados o devengados según las cifras deducidas de los estados contables consolidados, con sujeción, en su caso, al Decreto Foral Normativo 1/2021, del Consejo de Gobierno Foral de 29 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales y a la Normativa de Estabilidad Presupuestaria.

Bigarrena. 2027ko ekitaldian, Kontuen Europako Sistemaren definizioaren eta mugaketaren arabera Administrazio Publikoen sektorean sailkatuta dauden toki-entitateek eta haien mendeko entitateek epe luzeko zorpetze eragiketak hitzartu ahal izango dituzte, Arabako Foru Aldundiak baimena eman ondoren, eta, hala badagokio, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemaileari jarraikiz; betiere, 2026ko ekitaldia aurrezki garbi positiboarekin edo nuluarekin likidatzen badute eta likidatutako edo sortutako diru sarrera arrunten ehuneko 60 baino gehiagoko zorpetze bolumena badute, baina ehuneko 110 edo txikiagoa.

Segundo. En el ejercicio 2027, las entidades locales y sus entidades dependientes clasificadas en el sector Administraciones Públicas, de acuerdo con la definición y delimitación del Sistema Europeo de Cuentas, que liquiden el ejercicio 2026 con ahorro neto positivo o nulo y que tengan un volumen de endeudamiento superior al 60 por ciento pero inferior o igual al 110 por ciento de los ingresos corrientes liquidados o devengados según las cifras deducidas de los estados contables consolidados, podrán concertar operaciones de endeudamiento a largo plazo previa autorización de la Diputación Foral de Álava con sujeción, en su caso, al Decreto Foral Normativo 1/2021, del Consejo de Gobierno Foral de 29 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales.

Hirugarrena. 2027ko ekitaldian, toki erakundeek eta Europako Kontu Sistemako definizioaren eta mugen arabera administrazio publikoen sektorean sailkatuta dauden haien mendeko erakundeek, ez badituzte betetzen lehenengo eta bigarren idatz zatietan azaldutako baldintzak, ezingo dute epe luzerako kreditu eragiketarik hitzartu.

Tercero. En el ejercicio 2027, las entidades locales y sus entidades dependientes clasificadas en el sector Administraciones Públicas, de acuerdo con la definición y delimitación del Sistema Europeo de Cuentas que no cumplan las condiciones recogidas en los apartados primero y segundo, no podrán concertar operaciones de crédito a largo plazo.

Laugarrena. Aurreko apartatuetan azaldutakoaren salbuespen gisa, hitzartutako epe luzerako kreditu eragiketak birfinantzatzeko eragiketak formalizatu ahal izango dira, betiere helburutzat badute eragiketa haien finantza karga arintzea, amortizazio epea luzatzea edota arriskua gutxitzea, mugaeguneratzeko dauden eragiketen ondoriozko obligazioei dagokienez, aldez aurretik Arabako Foru Aldundiaren baimena jasota.

Cuarto. Como excepción a lo dispuesto en los apartados anteriores se podrán formalizar operaciones de refinanciación de operaciones de crédito a largo plazo concertadas, siempre que tengan por finalidad la disminución de la carga financiera, la ampliación del período de amortización o el riesgo de aquellas operaciones, respecto a las obligaciones derivadas de las pendientes de vencimiento, previa autorización de la Diputación Foral de Álava.

Baimenari kalterik egin gabe, kasu horietan honako baldintza hauek ezartzen dira:

Sin perjuicio de la autorización, en estos casos se establecen las siguientes condiciones:

a) Erakundeek likidazioan aurrezki garbi positiboa badute eta haien zorra ehuneko 60tik gorakoa bada baina ez badu gainditzen likidatutako edo sorrarazitako diru sarrera arrunten ehuneko 110, kontabilitate orri bateratuetatik ateratako zifren arabera. Osoko Bilkuraren erabaki baten bidez,

a) Cuando las entidades liquiden con ahorro neto positivo y tengan un volumen de endeudamiento superior al 60 por ciento pero inferior o igual al 110 por ciento de los ingresos corrientes liquidados o devengados según las cifras deducidas de los estados contables consolidados. Mediante acuerdo

kapital bizia murrizteko plana onartu beharko da, bost urte igaro baino lehen kapital biziaren zenbatekoa ehuneko 60 edo gutxiago izan dadin.

b) Erakundeek likidazioan aurrezki garbi negatiboa badute edo haien zor biziaren zenbatekoak likidatutako edo sorrarazitako diru sarrera arrunten ehuneko 110 gainditzen badu, kontabilitate orri bateratuetatik ateratako zifren arabera. Osoko bilkuraren erabaki bidez, finantza saneamenduko edo kapital bizia murrizteko plan bat onetsi beharko da, gehienez ere bost urteko epean aurrezki garbiaren zeinua edo zor biziaren bolumena zuzentzeko, zor bizia % 110ekoa edo txikiagoa izan dadin, hurrenez hurren.

Ezingo dira birfinantzatze horretan sartu otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuenak, 34. eta 49. artikuluetan ezarritakoa aplikatuz egindako eragiketak.

Goiko a) eta b) apartatuetan aipatutako planak Arabako Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaizkio. Toki erakundeko kontuhartzaile lanak egiten dituen organoak plan horien betetzeari buruzko txostena egin beharko du urtero. Toki korporazioaren Osoko Bilkurari txosten horren berri emango zaio, jakitun egon dadin. Gainera, Arabako Foru Aldundiari igorriko zaio.

Aipatutako planak bete ezean, toki erakundeak ezingo du epe luzerako zorpetze eragiketarik hitzartu edozein motatako inbertsioak finantzatzeko.

Edonola ere, ezingo da areagotu Arabako Biltzar Nagusietan onartutako Aurrekontu eta Finantza Bideragarritasuneko Planaren arabera baimendutako eragiketen amortizazio epea, berau arautzen duen Foru Araua aurretik aldatu ez bada.

Bosgarrena. Aurrezki garbiaren eta zorpetze mailaren kalkuluan zenbatu behar diren diru sarrera arruntak zehazteko, Toki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 53. artikuluan 57. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Seigarrena. Kapital bizia kalkulatzeko kontuan hartuko dira 2026ko abenduaren 31n indarrean dauden eragiketa guztiak, abalen ondoriozko arriskua barne, eta azken horri gehituko zaizkio formalizatutako eragiketetako saldo ez erabiliak eta proiektatutako eragiketen zenbatekoa, halakorik egonez gero. Arabako Toki Erakundeak

de Pleno, se deberá aprobar un plan de reducción del capital vivo para que, en un plazo máximo de cinco años, el volumen del mismo sea igual o inferior al 60 por ciento.

b) Cuando las entidades liquiden con ahorro neto negativo o tengan un volumen de endeudamiento vivo superior al 110 por ciento de los ingresos corrientes liquidados o devengados según las cifras deducidas de los estados contables consolidados. Mediante acuerdo de Pleno, se deberá aprobar un plan de saneamiento financiero o de reducción del capital vivo para corregir, en un plazo máximo de cinco años, el signo del ahorro neto o el volumen de la deuda viva para que esta sea igual o inferior al 110%, respectivamente.

No se podrán incluir en la citada refinanciación las operaciones formalizadas en aplicación de los artículos 34 y 49 la Norma Foral 3/2004, de 9 de febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava.

Los planes mencionados en los apartados a) y b) anteriores, deberán comunicarse a la Diputación Foral de Álava. El órgano que haga las funciones de intervención en la entidad local deberá emitir un informe anual del cumplimiento de estos planes. Del informe se dará cuenta al Pleno de la corporación local para su conocimiento, además, deberá ser remitido a la Diputación Foral de Álava.

En el caso de que se produzca un incumplimiento de los citados planes, la entidad local no podrá concertar operaciones de endeudamiento a largo plazo para financiar cualquier modalidad de inversión.

En todo caso no se podrá aumentar el periodo de amortización de las operaciones autorizadas en virtud de un Plan de Viabilidad Presupuestaria y Financiera aprobado por las Juntas Generales de Álava sin la previa modificación de la Norma Foral reguladora.

Quinto. Para la determinación de los ingresos corrientes a computar en el cálculo del ahorro neto y del nivel de endeudamiento, se estará a lo dispuesto en el artículo 57 del Decreto Foral Normativo 1/2021, del Consejo de Gobierno Foral de 29 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales.

Sexto. A efectos del cálculo del capital vivo, se considerarán todas las operaciones vigentes a 31 de diciembre del año 2026, incluido el riesgo deducido de avales, incrementado, en su caso, en los saldos de operaciones formalizadas no dispuestos y en el importe de las operaciones proyectadas. No se incluirán los saldos que deban

Finantzatzeko Foru Funtseko behin betiko likidazioen ondorioz toki erakundeek itzuli behar dituzten saldoak ez dira kontuan hartuko.

Zazpigarrena. Toki erakundeek egindako zorpetze eragiketak Arabako Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaizkio formalizatzen direnetik hilabete igaro aurretik.

Zortzigarrena. Toki erakundeek kreditu eragiketak ituntzeko beren prozeduretan parte hartzen duten finantza entitateen esku jarriko dute tokiko kontu hartzailetzaren txostena, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 55. artikuluaren 2. apartatuan arautua. Txosten horretan, aurreko paragrafoetan aipatutako mugak betetzen direla egiaztatzen duten kalkuluak jasoko dira, bai eta ordaintzeko gaitasunaren neurketari eragiten dion beste edozein doikuntza ere, eta, aplikatzekoa den kasuetan, aipatutako arau horren 53.5 artikuluan araututako nahitaezko baimena betetzen dela adieraziko da. Finantza erakundeek, hala badagokio, beren eskaintzak aldatu edo kendu ahal izango dituzte, txostenaren edukia ezagutu ondoren.

Bederatzigarrena. Toki erakundeen elkarteetan oinarritutako entitateak, partzuergoak eta sozietate publikoak desegiten direnean, haien kide edo partaide izandako toki erakundeek, haien eskubide eta betebehar guztietan subrogatuta, epe luzeko kreditu eragiketak hitzartu ahal izango dituzte betebeharrak betetzeko, alegia, toki erakunde bakoitzak berari dagokion zatia betetzeko, bere partaidetza portzentajearen arabera.

Zorpetze eragiketa berriak formalizatu ahal izateko, Arabako Foru Aldundiaren aurretiazko baimenaz gainera, organo likidatzailearen ziurtagiria ere beharko da, non jasorik utziko baita toki erakundeak bere partaidetza portzentajeari dagokion zorra hartu duela bere gain, behin mankomunitatearen, partzuergoaren edo sozietate publikoaren eskubide ekonomikoak gauzatu eta beraren betebeharrak betetzeko erabili eta gero.

Hamargarrena. 2027ko ekitaldian Arabako kontzejuek epe luzerako zorpetze eragiketak hitzartu ahal izango dituzte, betiere Arabako Foru Aldundiaren baimena jasoz gero.

Toki erakunde horiek baldintza bakarra bete beharko dute: aurreko ekitaldiaren likidazioan aurrezki korrontea positiboa izatea. Horien diru sarrera arrunten eraginetarako, ordenantza bidez onartutako auzotarren ekarpenak kontuan hartuko dira.

reintegrar las entidades locales derivados de las liquidaciones definitivas del Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de Álava.

Séptimo. Las operaciones de endeudamiento formalizadas por las Entidades Locales deberán ser notificadas a la Diputación Foral de Álava, dentro del mes siguiente a su formalización.

Octavo. Las Entidades Locales pondrán a disposición de las entidades financieras que participen en sus procedimientos para la concertación de operaciones de crédito, el informe de la Intervención local regulado en el apartado 2 del artículo 55 del Decreto Foral Normativo 1/2021, del Consejo de Gobierno Foral de 29 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales, en el que se incluirán los cálculos que acrediten el cumplimiento de los límites citados en los párrafos anteriores y cualesquiera otros ajustes que afecten a la medición de la capacidad de pago, así como el cumplimiento, en los casos que resulte de aplicación, de la autorización preceptiva regulada en el artículo 53.5 de la citada norma, pudiendo las entidades financieras, en su caso, modificar o retirar sus ofertas, una vez conocido el contenido del informe.

Noveno. La concertación de operaciones de crédito a largo plazo en los supuestos de disolución de entidades de base asociativa local, consorcios y sociedades públicas, por parte de las entidades locales que las hubieren integrado o participado, en tanto se subroguen en todos sus derechos y obligaciones, tendrá como finalidad dar cumplimiento las obligaciones que se deriven en la parte que les corresponda de acuerdo con su porcentaje de participación.

Para la formalización de las nuevas operaciones de endeudamiento, además de autorización previa de la Diputación Foral de Álava, se requerirá la certificación del órgano liquidador relativa a la correspondencia de la deuda asumida con el porcentaje de participación mencionado, una vez se han ejecutado los derechos económicos de la mancomunidad, consorcio o sociedad pública y aplicado al cumplimiento de las obligaciones a cargo de la misma.

Décimo. En el ejercicio 2027 los Concejos Alaveses podrán concertar operaciones de endeudamiento a largo plazo, en todo caso previa autorización de la Diputación Foral de Álava.

Estas entidades locales sólo deberán cumplir el requisito de liquidar el ejercicio anterior con ahorro corriente positivo. A los efectos de sus ingresos corrientes se tomarán en cuenta las aportaciones vecinales debidamente aprobadas mediante

Aurreko lerroaldean azaldutako baldintza betetzen ez duten kontzejuek ezingo dute epe luzerako kreditu eragiketarik hitzartu.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.
Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Araua aldatzea.

Lehenengoa. Aldatu egiten da Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren 1. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

"1. Foru arau honek Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bidez ezarritako laguntzak emateko zer irizpide, arau eta agindu finkatu beharko diren ezartzen du".

SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.
Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorra aldatzea.

Lehenengoa. Aldatu egiten da Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 59. artikuluaren 7. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

"7. Foru Gobernu Kontseiluak konpromiso kredituen egoera handitu ahal izango du, kreditu berriak onartuz edo baimendutakoen zenbatekoa handituz, ekitaldiko aurrekontua betearazteko foru arauak ezartzen duen mugaraino.

Batzar Nagusiei dagokie konpromiso kredituen egoera handitzea, kreditu berriak onartuz edo baimendutakoen zenbatekoa handituz, aurreko zenbakian aurreikusitako muga gainditzen denean.

Muga horretarako, ez da kontuan hartuko Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duten arauetan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozko aurrekontuko kredituei eragiten dien konpromiso kredituen egoera handitzea".

Bigarrena. Aldatu egiten da Aurrekontuei buruzko urtarrilaren 25eko 3/2023 Foru Arau Orokorraren 64. artikuluaren 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

"1. Foru Gobernu Kontseiluari dagokio kredituen transferentzia hauek baimentzea:

1.1. Konpromiso kredituei eragiten dietenak.

ordenanza.

Aquellos Concejos que no cumplan la condición recogida en el párrafo anterior, no podrán concertar operaciones de crédito a largo plazo.

DISPOSICIÓN ADICIONAL QUINTA.
Modificación de la Norma Foral 9/2017, de 12 de abril, reguladora del Plan Foral de Obras y Servicios de la Diputación Foral de Álava.

Primero. Se modifica el artículo 1 de la Norma Foral 9/2017, de 12 de abril, reguladora del Plan Foral de Obras y Servicios de la Diputación Foral de Álava, quedando redactado en los siguientes términos:

"1. La presente Norma Foral tiene por objeto establecer los criterios, reglas y prescripciones por los que deberá regirse la concesión a las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava de las ayudas establecidas en el Plan Foral de Obras y Servicios de la Diputación Foral de Álava."

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEXTA.
Modificación de la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria.

Primero. Se modifica el apartado 7 del artículo 59 de la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria que queda redactado en los siguientes términos:

"7. El Consejo de Gobierno Foral podrá incrementar el estado de créditos de compromiso, aprobando nuevos créditos o aumentando el importe de los autorizados hasta el límite que establezca la norma foral de ejecución presupuestaria del ejercicio.

Corresponderá a las Juntas Generales incrementar el estado de créditos de compromiso, aprobando nuevos créditos o aumentando el importe de los autorizados, cuando se supere el límite previsto en el párrafo anterior.

No computará para el citado límite el incremento del estado de créditos de compromiso que afecte a créditos presupuestarios procedentes de la aplicación de lo dispuesto en las normas reguladoras del Plan Foral de Obras y Servicios de la Diputación Foral de Álava.".

Segundo. Se modifica el apartado 1 del artículo 64 de la Norma Foral 3/2023, de 25 de enero, General Presupuestaria que queda redactado en los siguientes términos:

"1. Corresponderá al Consejo de Gobierno Foral autorizar las transferencias de créditos siguientes:

1.1. Las que afecten a créditos de compromiso.

1.2. Dirulaguntza izendun bat osorik edo zati batean gutxitzearen ondoriozkoak.

1.3. Aurrekontu programen artean egiten direnak, baldin eta horien zenbatekoa ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko foru arauak ezartzen duena baino handiagoa bada

1.4. Kreditu orokorrari eragiten diotenak.

1.5. Kapital eta finantza eragiketetarako kredituetatik eragiketa arruntetarako kredituetara, egiten direnak, betiere inbertsio berriak martxan jartzeko erabiltzen ez badira.

1.6. Aurretik transferentzia bidez kreditua gutxitu den lotura maila bati dagozkion ordainketa kredituak handitzen dituztenak.

1.7. Aurretik transferentzia bidez kreditua handitu den lotura maila bati dagozkion ordainketa kredituak gutxitzen dituztenak”.

ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.
Zerbitzu aktiboan jarraitzeko luzapena.

1. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 67.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, erretiro arrunta ofizioz deklaratuko da, funtzionarioa legez ezarritako adinera iristen denean.

2. 2027ko ekitaldian, nahitaezko erretirorako adinera iristen denean (erretiro arrunta hartzeko legezko adina, Gizarte Segurantzaren edo kasu bakoitzean dagokion mutualitatearen araubidearen arabera), Arabako Foru Aldundiak zerbitzu aktiboaren luzapena onartu ahal izango du, baldin eta interesdunak egiaztatzen badu ez dituela kasu bakoitzari dagokion pentsioaren ehuneko ehuna sortzeko behar diren zerbitzu- edo kotizazio-urteak, ehuneko horretara iritsi arte.

3. Zerbitzu aktiboaren luzapena ezin izango da onartu interesdunak pentsio publikoak jasotzeko urtero aurrekontu-legerian ezartzen den gehieneko mugaren berdina edo handiagoa den erretiro-pentsio bat sortzeko baldintzak betetzen dituenean, nahiz eta zerbitzu aktiboan jarraitzeak gehieneko muga horretatik gorako pentsio bat jasotzeko eskubidea sortu, portzentaje gehigarriak aplikatuta.

4. Ezin izango da, inolaz ere, hirurogeita hamar urtetik gorako luzapenik eman.

1.2. Las derivadas de la disminución total o parcial de una subvención nominativa.

1.3. Las que se realicen entre distintos programas presupuestarios cuya cuantía exceda de la que establezca la norma foral de ejecución presupuestaria de cada ejercicio.

1.4 Las que afecten al crédito global.

1.5. Las que se realicen de créditos para operaciones de capital y financieras a créditos para operaciones corrientes, siempre que no sean utilizados para la entrada en funcionamiento de nuevas inversiones.

1.6. Las que incrementen créditos de pago pertenecientes a un nivel de vinculación en el que previamente se hubiera minorado crédito mediante transferencia.

1.7. Las que minoren créditos de pago pertenecientes a un nivel de vinculación en el que previamente se hubiera incrementado crédito mediante transferencia.”

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEPTIMA.
Prolongación de la permanencia en el servicio activo.

1. De conformidad con lo establecido en el artículo 67.3 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, la jubilación ordinaria se declarará de oficio al cumplir la persona funcionaria la edad que se determine legalmente.

2. Durante el ejercicio 2027 cuando se alcance la edad de jubilación forzosa (edad legal de acceso a la jubilación ordinaria de acuerdo con el régimen de Seguridad Social o de mutualidad que corresponda en cada caso) la Diputación Foral de Álava podrá conceder la prórroga en el servicio activo cuando la persona interesada acredite no contar con los años de servicio o de cotización necesarios para generar el cien por cien de la pensión que corresponda en cada supuesto, hasta alcanzar dicho porcentaje.

3. No procederá la concesión de la prórroga en el servicio activo cuando la persona interesada reúna las condiciones para causar una pensión por jubilación igual o superior al límite máximo de percepción de las pensiones públicas que se establezca anualmente en la legislación presupuestaria, aun en el caso de que la permanencia en el servicio activo pudiera generar el derecho a percibir una pensión superior a dicho límite máximo mediante la aplicación de porcentajes adicionales.

4. En ningún caso podrá concederse una prórroga más allá de los setenta años.

5. Zerbitzu aktiboan jarraitzeko salbuespenezko baimena erretiro arrunta hartzeko adina bete baino hiru hilabete lehenago eskatu beharko du interesdunak, eta, nolanahi ere, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren nahitaezko txosten loteslea beharko da.

6. Bai luzapena onartzeko bai onartutako epean jarraitu ahal izateko, interesduna zerbitzurako egokitzat jo beharko da, dagokion osasun-azterketaren bidez, eta, hala badagokio, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak egindako jardunaren ebaluazioaren emaitzen bidez.

5. La autorización excepcional de la prolongación de la permanencia en el servicio activo deberá solicitarse por la persona interesada con tres meses de antelación al cumplimiento de la edad de jubilación ordinaria y precisará en todo caso de un informe previo preceptivo y vinculante de la Dirección de Función Pública.

6. Tanto la concesión de la prórroga como su mantenimiento en el plazo concedido está condicionada a que la persona interesada fuera considerada apta para el servicio mediante la realización del correspondiente examen de salud y, en caso de que se determine, a los resultados de la evaluación del desempeño realizada por la Dirección de Función Pública.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru arau honek indarrean dirauen artean indargabeturik egongo dira beraren aurka dauden eta berarekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Durante el período de vigencia de la presente Norma Foral, quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan o contradigan a la misma.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

Foru Arau hau ALHAOn argitaratzen ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

DISPOSICIÓN FINAL. Entrada en vigor

La presente Norma Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y surtirá efectos desde el 1 de enero de 2027.